



## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Nahia Lopez, Unai Garcia, Ixone Reyes eta Marta Estevez

**Akelarre** Gasteizko emakume guztiei zuzendutako aplikazioa da, beraien kultura, gustuak, interesak edota egoera edozein dela ere. Hortaz, gure bezero-segmentua emakumeak izango lirateke, baina kolektibo honen barruan ez da beste bereizketarik egingo. Emakumeek izen-emango dute eta behin aplikazioan barne egonik interes eta ezaugarri komunak araberako taldekatzeak gauzatuko dituzte, taldekatze horien arteko mugimenduak eta aldaketak ahalbidetuz uneoro. Hortaz, **merkatu segmentatutzat** hartuko dugu.

Aurretik aipatu dugun moduan, gure **bezero-taldea** emakumeak bere osotasunean dira, baina beren ezaugarri eta interes komunak oinarritzat hartuz taldekatuko ditugu, beraiek finkatutako beharrak hobeto asetzeko. Besteak beste, honako hauek dira gure bezero-taldeak komunean dituen ezaugarri nagusiak:

- Emakumeen artean denbora konpartitzeko nahia.
- Emakume ekintzaileak.
- Aktiboak eta parte hartzaileak.
- Aisialdian jarduera desberdinak egiteko gogoia.
- Dakitena eskaintzeko eta gauza berriak ikasteko grina.
- Seguru sentitzeko beharra/nahia.
- Gizarte-taldea zabaltzeko gogoia.
- Harreman osasuntsuak eta indartsuak eraikitzeko nahia.
- Gauean batera bueltatzeko beharra.
- Emakume izateagatik gizarteak inposatutako estereotipoak apurtzeko gogoia.
- Kateak puskatzeko nahia.
- ...